



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2009-07-22

VII. URTEA 1.760. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



I. GARCIA

**JOSUNE ZABALA** MINTZOLA FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

## «Ahozkotasunean jostun lana egingo du Mintzolak»

**VILLABONA** Mintzolak herriari zerbait eskaini behar diola eta herriak berak ere bere parte bezala hartu behar duela dio Josune Zabalak > 3

## «Kultur ondarea zaintzeko deia» egin du ezker abertzaleak

**IBARRA** Udalak 2004an Aranzadiri eskaturiko kultur ondarearen inbentarioa ekarri du gogora; «58 elementu hartu zituen kontuan elkartek» > 7

**PATXI URIZAR** DUATLOILARIA

## «Korrikan puntu bat faltatu zait aurten eta ez naiz hain gustura aritu»

**VILLABONA** Hainbat txapelketa irabazi ditu eta Frantziako Val D'Aran proban 4. egin du > 4

## VI. Transernio Txapelketaren hurrengo partidak, bihar eta etzi

**ADUNA** Santio Eguna dela-eta larunbat honetan ez dute partidarik jokatu > 5

## Espainiakoan ez dituzte «oso emaitza onak» lortu Danena-Olaederrakoek

**VILLABONA** Maila altua izan zen txapelketan; Sasiainek laugarren egin zuen > 6



sarrerak



HITZAK harpidedunentzat **2 afari bikoitz** ditu

### Euskal Jaieko afaria

Bildotsa burruntzian

Ekainak 25 • Larunbata • 21:00etan • Villabonako plazan



Ez da erraza euskarazko liburuak kaleratzen dituen argitaletxea sortzea. Etxe horrek 20 urte betetzea, gutxiago. Eta gainera hiru sortzaileak tolosarrak izatea. Igela du izena abentura horrek.

## Igela, 20 urte literaturan

JOXEMI SAIZAR

**D**uela hilabete gutxi, hiru tolosarren literatur abentura batek hogeitau urte bete ditu: Igela argitaletxeak. Xabier Olarra, Joseba Urteaga eta Josema Gonzalez dira hiru abenturazale horiek. 1953an jaioak hiruak, gaur egun Iruñean bizi da Olarra eta Zarautzen Urteaga.

Hiruei asko gustatu zaie irakurtea betidanik. Sorrera Hernaniko Institutuan koka daiteke. Olarra eta Urteaga han elkartu ziren klaseak ematen. «Adin berekoak eta kale berekoak izan arren, sekula ez genuen gure artean hitz egin», dio Urteagak. Literatura estilo berdintsua gustuko zuten. Olarra itzulzaile gisa aritzen zen Elkar argitaletxerako. Itzulpenen argitaletxe propioa sortzea bururatu zitzaizen eta Urteagaren koadrilakoa zen Gonzalezekin harremanetan jarri ziren, sektore grafikoa sartuta zegoelako.

Aurretik, Gonzalezek errezeta liburu bat argitaratu eman zuen lagun batekin batera fotokopien bidez, erdi brometan, Bilbon ikasle garaian erabilitako amaren errezeptak bilduz. «300 ale kaleratu eta agortu egin ziren», dio Gonzalezek.

Liburu pare bat itzuli zuten bi irakasleek ingelesetik, ISBN eska-

**Nobela beltzari eta enigma-nobelari sail bana eskaini zioten hasieratik**

**«Literatur itzulpena ia soil-soilik argitaratu eta hainbeste irautea ez da txori-kaka» (X.Olarra)**

tu, inprentarekin hitz egin, diru pixka bat jarri eta nobela beltzako sail batekin hasi ziren martxan. Garai hartan oso liburu gutxi zeuden euskaraz eta gustukoak zituztenak (Jim Thompson, Bill Ballinger) euskarara itzuli gabe zeuden. Mata komikigile beasaindarrak egin zizkien hasierako logoa eta marrazkiak eta Zut!-ek diseinua. Jokin Aizpurua irurarrak ere egin zizkien marrazki batzuk.

Liburuak aukeratzekoan, nobela beltzari eta enigma-nobelari sail bana eskaini zioten hasieratik, argitaratu zitezkeen liburuen zerrenda bat jarraituz. 20. zenbakiraino iritsi dira Sail Beltza izendatu

zuten bilduman, eta 12raino Enigma deitu zuten sailean. «Hortik kanpo, gure gustukoak izatea, hori izan da bigarren irizpidea», dio Olarrak.

Igelaren sorrera eguna seinaltatu izan zen, apirilaren 14a, hain gustukoa duten Errepublikaren eguna. «Iruñean sinatu paperak notarioaren aurrean eta Tafallako Tubal jatetxera joan ginen afaltzerara», gogoratzen du Gonzalezek.

**Irabazi gutxi eta lan asko**

«Igela emankortasunaren sinboloa da, eta baita haragikeriarena ere (dotrinan *lujuria* esaten zitzaion horrena, alegia). Baina sorreratik urte pare batera akronimo bat zela adierazi nuen, Irabazi Gutxi eta Lan Askok, eta *irabazi gutxi* hori ere gehiegi esatea zela adierazi dut beste nonbait orain dela gutxi», dio Olarrak. «Emankortasunaren aldetik, hotz-hotzean begiratu gero, 20 urtean 80 liburu ateratezakez dirudi sekulako marka, baina literatur itzulpena ia soil-soilik argitaratu eta hainbeste irautea ez da txori-kaka, gremioko edozeinek ederki asko dakienez», eranstu du.

«Ikaragarriko merkatu-azterketarik gabe hasi ginen *negozio* honetan, afizioa ofizio bihurtu nahian. Panoraman zer zegoen ikusi, eta zer bait hobea eskaintzeko asmoz. Gazteegiak eta berdegiak izan, nonbait. Eta uste genuen jendearen eskura liburu onak jartzea aski zela denak harrapazka gure liburuak erostera bultzatzeko. Baina urte pare bateko ibilbidea aski izan zen konturatzeko euskaraz literatura irakurtzera bultzatzea lan nekeza zela», azaldu du Olarrak.

Euskaraz urtero liburu asko argitaratzen dela eta gutxi irakurtzen dela dio Gonzalezek. Horregatik liburuak «militantzia hutsa» gatik arituz atera daitezkeela dio, beraien lanetatik kanpora. Truman Capoteren *Odol hotzean* edo Celineren *Azken muturrerainoko bidaiak* bezalako liburuak kaleratzea garrantzitsua iruditzen zaio eta «harro» sentitzen da. Gonzalezen lana inprentekin aritzea, azalaren konposizioa egitea eta banaketaz arduratzea zen aurreneko urteetan. Usurbilgo inprimategi batean hasi eta berehala Zarautzko Itxaropena pasa ziren. «Hasieran Gudari kaleko lokal batean genituen liburuak», dio.



Ekzerretik hasita, Xabier Olarra, Joseba Urteaga eta Josema Gonzalez; Tolosan elkartu genituen. JOXEMI SAIZAR

## «Ahazturik geldituko ziren idazleak irakurleen eskura jarri ditugu»

**XABIER OLARRA** | Igela argitaletxeko arduraduna

**Literatura** | Irakaskuntza alde batera utzita, Nafarroako Gobernuan itzulzaile gisa ari da Xabier Olarra tolosarra

J.SAIZAR

Eguneroko lanaz aparte, literatura asko itzuli du Xabier Olarrak. Elkar argitaletxerako lehendabizirik eta Igelarako gero. Itzulzaileen artean «mais» bezala kontsideratzen dute bere bazkide-lagunek. «Omenaldia merezi du», diote.

**Laurogei bat liburu argitaratu dituzue. Sorrerako helburuak bete al dituzue?**

Sorreran, elkarrizketaren batean, esan nuen urtean 10en bat liburu ateratzea nahikoa eta gehiegi zela guretzat. Beraz, hamar urtean 100en bat liburu ateratzea zen asmoa. Orain, atzera begiratu gero, garbi ikusten da amets polita zela, 20 pasatu eta oraindik ez baitugu helburu hori bete. Baina orain, helburuak pixka bat egokituiz, 25 urteraino iristen bagara, eta ordurako betetzen badugu helburu hori, ez da gutxi izango.

**Zein izan da argitaletxearen ekarpenik nagusiena?**

Ez dakit inolako ekarpenik egin dugun. Beharbada gaur egungo literaturako zenbait idazle eta liburu, beharbada erabat ahazturik gelditu edo oharkabean pasako zirenak, jendearen eta batez ere irakurle gazteen eskura jartzea.

**Nolako harremana duzue idazle-**



JOXEMI SAIZAR

**ekin, beste itzulzaileekin, inprimategiekin eta irakurleekin?**

Idazleekin ez dugu harreman handiegirik izan. Joxemari Iturraldeekin eta Juan Kruz Igerabiderekin izan genituen orain dela zazpi zortzi bat urte Gabonetako ipuinak sail berri bati hasiera eman genionean; liburu bana enkargatu genien. Orain, berriki, Koldo Izagireren bi liburu atera ditugu. Tar-teka, hasieran batez ere, izan genituen beste eskaintza batzuk ere. Atxagak ere promozio pixka bat egin zigun nik *Odol hotzean* eta Maria Garikanok Patricia Highsmithen nobela pare bat itzulizituenean. Baina gure linea zein zen ikusita, itzulpen eskaintza gehiago izan ditugu. Itzulzaileekin harreman gehixeago izan dugu, eta esan behar dugu ez gara ia inorekin haserretu. Ez da gutxi, hainbeste

denboran. Inprentekin harremana ona izan da, oro har. Hasieran muturrekoren bat hartu genuen han edo hemen, baina geroztik Itxaropenan izenekoan inprimatu izan ditugu gure liburuak, eta ez dugu kexa handirik. Irakurleekin dugun harremana, berriki, «estuetgia» da, guk askoz zabalagoa nahi genuke, nahiago genuke milatik bat ezagutu, baina guztira ere ez dakit mila irakurle izango ditugun...

**Zein da zure ustez gaur egun euskal literaturaren egoera?**

Hori galdera potoloogia da niretzat. Euskarazko literaturaren egoeraz kritikariek edo soziologiek erantzun lezakete, edo euskarazko literatura argitaratzen dutenek.

**Eta itzulpengintzarena zehazki?**

Itzulpengintza ere oso alor zabala da. Badituzu hor itzulpen juridiko-administratiboa, teknikoa eta literarioa. Bakoitzak bere egoera du. Literatur itzulpenari gagozkiola, ezin esan oso osasun onean dagoenik. Beharbada franko hobetu dugu testuen kalitatean, baina irakurleak erakartzeari dagokionez, minimoetatik nahiko urrun gabiltzalaruditzen zait.

**Nolako etorkizuna ikusten diozu Igelari?**

Gure sail nagusietako baten kolorekoa. Garbi dago euskal adjektiboan duen orori «*No future*» etiketa dagokiena. Baina hortxe gaude gu, *E pur si muove* Igelak oraingoz badiruela esan daiteke...

**E Elkarrizketa**

**JOSUNE ZABALA** ▶ Mintzola Fundazioko zuzendaria

**Villabona** » «Herriari zerbait eskaini behar dio eta herriak bere parte bezala hartu behar du», dio Fundazioak duela hilabete batzuk izendatu zuen Josune Zabala zuzendariak.

**IMANOL GARCIA**

Josune Zabala da Mintzola Fundazioaren zuzendaria. Donostian jaio zen 1978an eta egun Errezilen bizi da. Maiatzean hasi zen bere lan berrian, Villabonako Subijana etxean. Euskal Filologia ikasi du eta Doktorego ikasketak ere egin ditu. Graduondoko bat ere egin du hizkuntzen kudeaketari buruz. AEKn irakasle izan da Donostian eta Gasteizen, Azpeitiko patronatua ere euskara irakasle eta bertako Udalean euskara trebatzaile izan da. Mondragon Unibertsitatean irakaslea izan da ere eta Mintzolako zuzendari izendatu aurretik, beka batekin ikertzaile modura zebilen hizkuntzaren alorrean.

**Zein da Mintzola helburua?**

Euskal Herri mailan ahozkotasuna jorratzen duten erakunde, elkarte, unibertsitateekin... harremanetan proiektuak sortzea. Batek, gu abiatzea dauden elkarteetara eta proposatzea zerbait egin daitekeen ikerketari lotuta edo zuzenean gizartearen eragiteko, edo bestela etortzen denari horren arabera ere kasu egitea eta proiektuak sortzea. Mintzola fundazioa izango litzateke sare lotzailea izatea, jostun lana egitea.

**Nondik hasi zara lan horretan?**

Mintzola aurrera eramateko Joxerra Gartzia txosten bat idatzi zuen eta nire aurreneko lana txosten hori aztertzea izaten ari da. Mintzolan kudeaketa lanketa prestatu eta gero hasi pentsatzen zein erakundeetara hasi gaitzekoen joaten proiektuak aurrera eramateko, nola joan daitekeen osatzen sare hori.

**Zer suposatzen du Villabona eta bertako herritarrentzat Mintzola Fundazioaren egoitza herrian izateak?**

Niretzako oso garrantzitsua da gai hau. Egin behar ez duguna da gu hona etorri eta satellite bat izango bagina bezala Udalarekin eta herriarekin harremanik ez izatea. Alkatearekin hizketan izan naiz eta esan diot: Mintzolak zerbait eskaini beharko lioke herriari eta herriak ere sentitu beharko luke Mintzola erakundearen parte eta bere ekarpenak egin herri mailatik. Oraindik aztertu gabe daukagu nola izan daitekeen hori, baina hemen areto bat dago eta askotariko funtzioa izan dezake. Lehentasuna du Mintzola proiektuak eta herriaren dagoen edozein kultur ekimen bertan egitea. Hori modu bat izan daiteke. Beste batzuk ere izan dai-



I. GARCIA

# «Mintzola fundazioa ahozkotasunean jostun lana egitea izango da»



I. GARCIA

tezte. Alkateari esan diot, herriaren aldeak badaude Mintzola herriaren parte sentitzeko, gustura hartuko ditudala.

**Ahozkotasuna jorratzen du Mintzola Fundazioak, baina zer da zehazki ahozkotasuna?**

Askotan ahozkotasuna esaten denean bertsolaritzarekin bakarrik lotzen da. Ahozkotasunaren bai-

tan ahozko generoak daude, bakoitza bere ezaugarriekin. Horietakoa bat da elkarrizketa, beste bat da ipuin kontalaritza, beste bat da eskoletan irakasleak ematen dituen azalpenak, beste bat da debatea, bestea kantugintza, antzerkia,.... Hau guztia azter daiteke iraganari begira, zer genero izan ditugun eta oraindik daukagun,

eta etorkizunari begira zein daukagun, orain sortu baitira genero berriak telebistari lotuta edo interneti lotuta. Kanpo zabal-zabala da. **Ahozko genero batzuk euskal kulturaren berezkoak edo tradizio handikoak dira. Horiak aztertuko dira bereziki?** Bi helburu ditugu. Bata iraganari begira dago eta jakin nahi da zer

egin den eta zer dakigun horri buruz. Eta hor gehiena bertsolaritza ikertu da. Baina ez dakigu, agian, kantugintza hainbeste, edo euskal antzerkigintza. Esaten da, adibidez, Hegoaldean asko antzeztzen zela eta dena galduta dugu. Beste helburua da gaur egungo beharrei lotutakoa. Zer behar daukagu? Adibidez, kale erabilera aztertzea, komunikabideek dituzten beharrik ahozkoari begira, edozein gizabanakok zer behar dituen jende aurrean hitz egiteko, eskolan bertan nola irakatsi haurrei ahoz komunikatzen...

**Bertsolaritzaren eremuan Xepelar dokumentazio zentroa dago. Ahozkotasunari begira horrelako zentro bat sortzeko asmorik badago?**

Asmoetako bat da Xepelar dokumentazio zentroa handitzearena. Orain bertsoa dokumentatzen bada, erabaki beharko da zer beste ahozko genero dokumentatzen hasiko den ere. Bestalde, gure giza-baliabideei begiratu, gure lanik handiena koordinazio lana izango da. Guk geuk ez dugu ikertuko. Guk bultzatuko duguna da ikerketa eta gizarteratzea, eta horretarako jarriko gara harremanetan unibertsitateekin, ahozko jarduna lantzen duten elkarteekin...

**Subijana etxean Euskal Herriko Bertsozale Elkarte egotea ere garrantzitsua izango da.**

Villabonako Udala bezala, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte Mintzola kidea da. Proiektu hau gehiena bultzatu duena Bertsozale Elkarte bera izan da. Eredu bat da. Joxerra Gartzia dioten bezala, elkarte Mintzola txiki bat bezala har genezake.

E **Elkarrizketa**

PATXI URIZAR &gt; Duatloilaria

**Villabona** » Hainbat txapelketa irabazi ditu aurten ere Urizarrek duatloian; parte hartu duen azkeneko duatloian, Frantziako Val D'Araneokoan, laugarren egin du.

## IMANOL GARCIA

Patxi Urizar (Villabona, 1974) aurten ere denboraldi ona egiten ari da. Hirugarren urtez jarraian Euskadiko txapelduna izan da distantzia motzeko duatloian, Euskal Herriko zirkuituan hirugarren egin badu ere. Distantzia luzeko Euskadiko txapelduna izan da ere eta Gipuzkoako distantzia motzeko txapelduna. Frantziako Distantzia Luzeko Duatloi Txapelketa-arentzat baliagarria den Val D'Araneoko duatloia aurten ere laugarren egin du.

**Euskadiko Txapelduna izan zara duatloi motzeko zirkuituan, baina ezin izan duzu zirkuitua bera irabazi.**

Euskal Herriko zirkuituan hamar lasterketa izaten dira eta horietan lortutako puntuen batuketan egiten da eta horren arabera egiten da sailkapena. Lehengo urtean irabazi nuen eta aurten hirugarren egin nuen. Puntu dezente galdu ditut pare bat probetan.

**Zirkuitua irabazteko asmoa zenuen.**

Bai, asmoa bai, baina lasterketak pasatu ahala, batzuk ibiltzen gara batuketak egiten: honek bigarren egiten badu, agian pasatu egiten dit sailkapenean eta horrelakoak.

**Beraz, emaitza gazi-goza.**

Aurten, egia esan, ez naiz hain gustura aritu. Gehienbat korrikari faltatu izan zait puntutxo bat, ez dut esango proba gehiago irabazteko, baina bai erosoago joateko behintzat.

**Espainiako Txapelketan parte hartu zenuen?**

Parte hartu nuen, baina hor 40.-edo egin nuen. Ez nintzen gustura aritu.

**Aurreko urtean bizikletarekin arazoak izan zenituen.**

Bai, Valentzian izan zen hori. Orain bi urte taldeka lehenengo egin genuen eta nik zortizgarren amaitu nuen. Lehengo urtean bizikletarekin arazoak eta aurten Gasteizen izan da txapelketa eta nahiko gaizki joan da.

**Iragarki laburrak**

## LANA

■ **Tabernaria.** Aresoko taberna batek pertsona bat behar du herriko jaietan abuztuaren 15etik 18ra lan egiteko. Interesatuak deitu 948 61 07 04 zenbakira.

# «Aurten ez naiz hain gustura aritu, korrikari puntutxo bat faltatu zait»



I. GARCIA

**Ematen duenez, Espainiakoan ez duzu zorte handirik izan. Egunean nola zauden eragin handia izango du ere.**

Bai, askotan korrikari 20 segundo asko dira. Bizikleta gainean jartzen zara eta aurreko taldean joan beharrean, bigarren taldean-edo zaudete. Eta gero aurrekoak harra-patzea zaila izaten da.

**Igandean parte hartu zenuen Val D'Arane duatloian. Zein zen ibilbidea?**

14 kilometro egin behar ziren korrikari, 85 kilometro bizikletan eta gero beste 10 korrikari.

**Aldapa bat edo beste bazegoen korrikari egin beharreko hasierako tartean, ezta?**

Ia 5,5 kilometro ziren igotzen korrikari, jaitsi, beste bi kilometro igo eta herrira jaisten ginen. Gero bizikletan ere nahiko gogorra zen. Lau mendate igotzen genituen Pirinioetan. Azkeneko zatiak korrikari

igoera txiki bat zeukan, baina nahiko laua zen.

**Eta lortutako laugarren postu horrekin gustura zaudete?**

Aurreneko zatian nahiko gaizki aritu nintzen korrikari. Uste baino denbora gehiago galdu nuen. Bizikletarekin postuak aurreratu nituen, baina nahiko denbora galdu nuen aurretik korrikari.

**Hirugarrena oso urruti gelditu zenuen?**

Bigarrena eta hirugarrena izan nituen une batean minutu bat baino gutxiagora, baina gero berriro korrikari bakoitzak beste minutu batetako abantaila aterazidan. Bigarretetik ia hiru minutura eta hirugarretetik bi minutura iritsi nintzen. Korrikari horiek gu baino maila handiagoa dute.

**Eta sailkapenean atzetik zenuen, gertu izan zenuen?**

Bizikletan egin beharreko tartea bosgarren amaitu nuen eta gero

korrikari bat pasatu nuen, nahiko justu zihoana.

**Hasierako korrikako tartea zenbagarren bukatu zenuen?**

Anaia eta biok bukatu genuen batera eta 35.-edo iritsiko ginen. Normalean 20.-edo iristen naiz, eta denboraren arabera ere normalean minutu bat gutxiago egin behar nuen. Anaia [Luis Mari] bosgarren egin zuen probaren bukatzean. Oso ondo aritu zen.

**Ikusten zenuen aurten podioan sartzeko aukerarik?**

Bai, horrek ematen dit pena gehiena. Lehengo urtean bizikletan aurrea iritsi nintzen eta gero korrikari pasa egin zidaten. Ikusten nuen ni baino hobeak zirela korrikari. Aurten besteak ni baino hobegoak ziren korrikari, baina ez hainbeste ere.

**Lehenengo parte horrek baldintzatu zuen proba guztia.**

Bai. Gainera gero denbora guztian postuak errekuperatu nahian zoaz. Nahastuta bezala joaten zara, ez zoaz erritmo berdinean. Gehiagi nahi duzu errekuperatu hasieratik.

**Hemendik aurrera zein izango da zure kirol agenda?**

Abuztuan Segovia aldean daukagu proba bat eta gero beste bat Frantzian, baina distantzia motzagokoak. Agian parte hartuko dut, zerbait egiteagatik uda parte honetan.

**Ezin duzu, beraz, geldirik egon.**

Bai, hori da. Helburu jakinik gabe, baina zerbait egin, entrenatzen jarraitu...

**Maila horretan aritzen zareten kirolariak ezingo zarete geldirik egon denbora luze.**

Beti zerbait egiten duzu, erritmoan mantsoxeago, baina geldi-geldirik urtean zehar hiru aste egoten naiz.

**Txapelketei dagokionez, denboraldia bukatu duzu?**

Bai, orain entrenatzen jarraitzen dut baina beste mentalitate batekin.

**Datorren urtera begira ere, lehia-entrenamenduko asmoarekin?**

Asmoa bai behintzat, gogoa badu oraindik eta lanaren ordutegiak ere uzten dit. Beti nahi duzu denbora gehiago, baina lanarengatik behintzat, ondo daukat eta jarraitzeko asmoa daukat.

**Lana eta entrenamenduz aparte, denbora gelditzen zaizu?**

Egia esan, eguerdian ordu eta erdi aritzen naiz bizikletarekin entrenatzen eta gero etxea bueltatzen naizenean korrikakoa egiten dut.

Egunean, guztira, bi ordu eta erdi aritzen naiz. Entrenamenduetzako baino, denbora falta hori nabaritzen da atsedean hartzeko. Beti afaldu berandu, ohera ere berandu...

**Duatloitik ez zara bizi, baina badago batenbat profesionala denik?**

Batzuk badaude. Espainian izango dira hamar bat. Frantzian gehiago daude, laguntza gehiago dituzte. Lasterketetan ere diru gehiago dago.

**Triatloian profesional gehiago daude?**

Bai, beka gehiago daude, kirol olinpikoa da... Diru gehiago dago.

**Triatloian aritzeko gogorik izan duzu?**

Egia esan ez. Neguan ibiltzen naiz igerian, baina ez dit inoiz tentatu.

**Bi kirol batera egitea ez omen da oso bateragarria. Eta hiru egitea...**

**Zuk nabaritzen duzu bi kirol batera egitean?**

Esaten dute duatloi bat gogorragoa egiten dela giharrei dagokionez triatloi bat baino. Agian igeri

**Entrenamenduetzako baino, denbora falta gehiago nabaritzen da atsedean hartzeko**

**Datorren urtera begira hemengo duatloietan ahal den maila onena ematea da helburua**

egiterakoan, uretan zoazenean, giharretzako ez da hain gogorra. Korrika egitea eta gero bizikletan eta gero berriro korrikari gogorragoa egiten da. Intentsoagoa ere bada. Korrikari oso azkar hasten zara. Hori esaten dute behintzat. Nik ez dut probatu triatloia.

**Datorren urtera begira zer erronka dituzu buruan?**

Hemengo duatloietan ahal den mailarik onena ematea. Daukadan denborarekin entrenatzeko ere ez dut planteatzen besterik.

**Datorren urtean ere saiatuko zara Val D'Arane duatloian parte hartzen?**

Beti esaten dut ea urte batean podioan sartzen naizen. Hirugarren urtean jarraian dalaugarren egiten dudala. Ea behingoz lortzen dudana, baina aurten baino errazago ez dut behin ere izan.

**Espainiako Txapelketan ere zorte hobegorik duzun ikusi behar.**

Espainiako Txapelketak ibilbidearen arabera aldakorrak dira. Korrikari ondo ibiltzen denak abantaila handia dauka. Bizikletako ibilbideak etorbide batean bueltakapibotean artean jartzen dute eta hor ezin duzu apenas ezer egin.

**Zuri komeni izaten zaizu bizikletako ibilbidea gogorragoa izatea.**

Hori da, bizikletan ondo ibiltzen garenak, alde hori erakusteko errepideak behar izaten ditugu, al-dapekin, haize gehiagorekin...

## AEKk euskara irakasle izateko oinarritzko ikastaroa antolatu du

**Euskara** » Ostirala da izena emateko azken eguna; on-line eta aurrez aurreko 6 saio izango dira urriaren 2ra arte.

### ERREDAKZIOA

Euskara irakasle izateko oinarritzko ikastaroa antolatu du AEKk Tolosaldean, irailaren 7tik urriaren 2ra. Matrikula egiteko azken eguna etzi izango da, ostiralarekin. Matrikularen kostua 305 eurokoa da.

Ikastaro honetan euskararen irakaskuntzarako beharrezkoak diren tresna metodologikoa eta irizpide teoriko eta praktikoa eskainiko dituzte, besteak beste.

Informazio gehiago 943 327172 telefonon zenbakian edo [maider.f@aek.org](mailto:maider.f@aek.org) helbidean lor daiteke.

## Transernioko hurrengo partidak, bihar eta etzi

**Aduna** » Aste honetan ez da partidarik izango larunbatean, Santio Eguna delako.

### ERREDAKZIOA

Adunako VI. Transernio Pilota Txapelketaren beste bi jardunaldi izango dira aste honetan. Bihar eta etzi jokatuko dira. Larunbatetako jardunaldia, beraz, ostiralean izango da aste honetan, larunbatean Santio Eguna delako.

Bihar 19:00etan hasiko dira partidak. Alebinak eta infantilak ariko dira. Alebinetan, Azpeitia-Bidegoian eta Andoain-Hernani izango dira partidak. Infantiletan, Hernani-Alegia eta Usurbil-Azkoitia.

Etzi benjaminetan eta kadete mailan izango dira partidak, 19:00etan hasita. Benjaminetan Azpeitia-Usurbil eta Alegia-Villa-

bona lehiatuko dira. Kadeteetan Alkiza-Añoiga, Andoain-Azkoitia eta Amezketa-Bidegoian.

### Aurreko asteko emaitzak

Hiru jardunaldi izan ziren aurreko astean. Asteazkenean jokatuakotetan, alebinetan, Añoiga 4-Bidegoian 16 eta Hernani 16-Aduna B 13 izan ziren emaitzak. Infantiletan, Alegi 18-Villabona B 16 eta Añoiga 1-Azkoitia 18. Ostegunean, alebin mailan, Aduna A 10-Villabona 16 eta Amezketa 3-Azkoiti 16 izan ziren emaitzak. Infantiletan, Lasarte 6-Amezketan 18 eta Andoain 18-Bidegoian 12.

Larunbatean, benjaminetan, Aduna 16-Bidegoian 8 eta Andoain 12-Amezketan 16 izan ziren emaitzak. Kadeteetan Aduna 5-Alegia 22 izan partidaren emaitza.

Txapelketako finala Adunako festen baitan izango da, abuztuaren 8an arratsaldean. Aurretik, finalerdia hilaren 30ean, 19:00etan, eta abuztuaren 1ean, 16:00etan izango dira.

## Laburrak

### 'Ice Age 3' filma izango da ikusgai asteburuan

**TOLOSA** » Haurrei zuzenduriko zinema eskaintza izango da asteburuan Leidor aretoan. Hain zuzen ere, *Ice age 3* filma emango dute: lehen saioa, ostiralean izango da 19:30ean larunbatean ere ordu berean izango da saioa, 19:30ean, eta hilaren 26an, igandarekin 17:00etatik aurrera.

### Kataluniar Pirinioetara joateko aukera Oargirekin

**TOLOSA** » Datorren astebururako mendi irteera antolatu du Oargi elkartek. Hilaren 31n aterako dira Tolosatik eta abuztuaren 2an itzuli. Oraingoan, Kataluniar Pirinioetara joango dira. Bertan dauden, Els Encantats (2.748 metro) eta Peguera (2.982 metro) mendiak igoko dituzte. Interesatuak aldez aurretik izena eman behar dute 688 69 86 42ra deituta edo [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) webgunean hilaren 27a baino lehen. Bestalde 20 euro sartu behar dituzte 3035 0028 11 0281141038 kontu korrontean.

### 'Pelex' eta Irazuren erakusketak Aranburun

**TOLOSA** » Aranburu jauregiak bi erakusketa ditu egunotan ikusgai. Batetik, Pelex artistaren *Hotsez Hots* eskultura erakusketa eta, bestetik, Karlos Irazuren *Kolpez Kolpe* eskultura eta egurgintza erakusketa. Bisita orduak 17:30etik 20:30era dira, jaiegun eta astelehonetan izan ezik.

### Pilota eskola sortzearen inguruan hitz egiteko bilera

**ZIZURKIL** » Gaur 19:00etatik aurrera bilera egingo dute Zizurkil Goiko Iriarte etxean, datorren ikurturtera begira Pilota Eskola sortu nahi dutelako. Bertara gonbidatuta daude pilotaren inguruan interesa dutenak, eta bereziki jolasten aritzen diren haurren gurasoak. Orain arte Zizurkilien Eskola Kirola programaren barnean aritu izan dira haurrek pilotan jolasten, baina Pilota Eskola sortuz gero, infantiletatik aurrera ere herriar pilotan aritzeko aukera izango lukete gaztetxoek, Zizurkilien zenean jokatuz.

## Gutunak

### Eutsi goiari Konsuelo!

Gaurkoan Espainiar eta Frantses espetxeetan barna sakabanaturiko ziega hauetatik, gure elkartasunik eta animorik indartsuena bidali nahi genioke, Konsuelo, gure senide eta adiskide maitagarriari.

Bai Konsuelo, argi geratu da berri ere gure herria zapaltzen dutenek, herri borondatearen gainetik beren ideiak armaz inposatu nahi dituzten horiek, ikusi besterik ez dago astero zer nolako jarrearekin etortzen diren herrira, Lizartzara, zein den beraien asmo eta helburu bakarra; betiko moduan, ukazioa eta errepresioa.

Orain 3 urtetarako espetxean sartu nahi zaituzte. Zergatik? Simpleki, Lizartzatarron duintasuna erakusteagatik, herri nahia defendatzeagatik, zaren eta garen modukoak izateagatik.

Garbi dugu mezu hau zuzenean zuri bidaltzea zela azkarrena eta diskretuena, hala ere, publiko egitea erabaki dugu, bi arrazoien gatik:

Batetik, euskal preso politikoan argazkia kentzea, ehiza-sari bihurtu duten horiei garbi adierazi nahi diegulako berriz ere tronpatu direla. Zer da ba hori, argazki bat kendu eta 11 sortzearen emaitza? Ez al dute sekula ikasiko gure ahotsa ixil-eziña dela? Gure askapen prozesuarekiko erabateko konpromezua «eredugarri eta adibide» izaten jarraituko duela?

Bestetik berriz, eta arrazoi nagusia, zutaz erabat harro gaudelako da. Horrexegatik, mezu labur

honen bitartez, lau haizetara zabaldu nahi genuen zureganako miresmena.

Beraz badakizu, zaindu, animo eta eutsi kastari.

Jaso gure besarkadarik eta muxurik sutsuena.

Maite zaitugu Konsuelo.

**Haimar Altuna Ijurko.** (Espetxean dituzun senide eta lagunen izenean).

### Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren salaketa

AAMak gogor salatu nahi du Uztailak 19, Igandea, goizeko 8:00etan kaleak hutsik zirela, herririko presoan argazkiak ezabatu izana. Aurpegia erdi tapaturik (lotsatuta edo) zuen langile batek margo grises estali zituen argazkiak ertzain ugariz babestuta.

Euskal Preso Politikoak gatazka politiko baten islada gogorra dira, ondorio zuzena. Beraien argazkiak kentzeak ez du gatazka desagerraraziko, alderantziz baizik.

Barne sailburuaren delirio errepresiboak ez duela eraginik izango azpimarratu nahi dugu. Argazkiak kentzen dituzten baikoitzean argazkiak berrezarriak izango direla, bai kendutako tokietan bai herriko gainontzeko txokoetan ere.

Azkenik, besarkada hestua helarazi nahi diegu Maite eta Goar, herririko preso senideei. Egokitu zaien borroka latz honetan beti aldamentean izango gaituzte.

**Ibarrako Amnistiaren Aldeko Mugimendua.**



## Nahi duzun tokira eramango zaitugu uda honetan



### GARMIN nüvi 200 GPSa

## Harpidedun egin zaituz eta lortu doan GPS hau

- Kioskoan baino %10 merkeago eskuratuko duzu.
- Goizero etxean, lantokian, zure eguneroko kioskoan duzula ziurtatuko dizugu.
- Gure promozioetan (disko bildumak, liburuak, mendiko gidak...) abantaila bereziz gozatzeko aukera izango duzu.
- Astero-astero harpidedunen artean opariak banatzen ditugu.
- Mantangorri larunbatero 16 orrialdeko gehigarri koloretua haur eta gaztetxoentzat
- NORA bidaiak aldez aurretik hilabeteko BERRIarekin
- ...

## Animatu! Merezi du

HARREMANETARAKO:  
943-30 43 45 • [harpidetza@berria.info](mailto:harpidetza@berria.info)

\*Urte osoko harpidedarako

Aukera ezazu,  
BIZI euskaraz  
**berria**

## «Espainiako Txapelketan ez ditugu emaitza onak lortu»

**Halterofilia** » Danena Olaederra taldea eskuratutako markak baino hobeak egiteko gai bada ere, ez da posible izan.

### N. URBIZU

Joan den asteburuan Espainiako Banakako Halterofilia Txapelketa jokatu zuten eta Danena Olaederra taldea bertan izan zen. Pultsulari gazteak joan ziren oraingoan, eta maila bereziki oso altua zegoen txapelketan hartu zuten parte: «Ez gara oso ondo aritu», prestatzailearen hitzetan.

Iker Hernandez, Igor Sasiain, Teddy Martinez, Jon Sasiain, Francisco Gonzalez eta Javier

Aranbururen orde (lesioa medio) Francisco Cruz joan ziren. 62 kiloko mailan Jon Sasiainek 4. postua lortu zuen: «Hirugarrenarekin berdindu zuen baina Jonen pisua handiagoa zenez, laugarren geratu zen: lan oso ona egin zuen». Kontuan izan behar da bi urtez geldirik egon dela lesioak zirela eta, eta urtebetean elite mailan jarri da. «Hori txalotzekoa da».

Iker Hernandez maila berean 7. postuan gelditu zen, «egia esan bere markatik nahiko aldenduta: ez zen ondo ibili».

69 kilokoan Igor Sasiainek 6. postua lortu zuen, «bere markaren inguruan, baina oso kategoria gogorra zegoen, guztiztan sendoena da. Espero zen hobe egingea baina jende oso ona zegoen».

### 77 kilotik gorakoetan

77 kilokoan Francisco Gonzalez aritu zen eta 7. bukatu zuen. Hala ere, «marka hobeak egiteko presatu zen. Urduri atera zen eta kilokekin ere ez zuen asmatu». 85 kiloko mailan Teddy Martinez aritu zen. Bigarren postua irabazi zuen, «baina lehena lortu behar zuen. Chicagoren lortutako emaitza errepikatzearekin nahikoa zuen, baina... Esan behar da, lesio bat ere bazuela, tendinitisen bat eta honek barra ondo hartzea oztopatzen zion».

Aranbururen orde joan zen Cruzek 94 kilokoan laugarren egin zuen: «Erreserban zegoen eta ezusteko polita eman digu; bere markak egin ez aritu zen eta oso ondo ibili zen».



Joseba Otaegi 2. mailako Aizkora Txapelketan lehiatuko da. NOELIA LATABURU

## Garmendia, Otaegi eta Goikoetxea Mendaron ariko dira

### ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak, Gipuzkoako 2. mailako Aizkora Txapelketaren finala eta Gipuzkoako Lokotx Biltze txapelketa antolatu ditu datorren ganderako. 18:30ean Mendaroko Goñati frontoan izango da. Lehenengo Gipuzkoako Lokotx biltze Txapelketa izango da eta bertan, Eneko Garmendia baliarraindarra eta Jon Goikoetxea gazteluarra ariko dira beste hiru partaiderekin batera. Aizkora Txapelketan, berriaz, sei lagun ariko dira eta tartean Zizurkilgo Joseba Otaegi.

Lokotx biltzaileek egin beharrekoa hau izango da: 50 lokotx bildu, hauek 1,25 metro batetik bestera egonik.

Gipuzkoako Lokotx biltze Txapelketaren jarraian Aizkora Txapelketa jokatuko dute. Egin beharreko lana 54 ko 4 enbor (neurria 1,252 metro enbor bakoitza) moztea izango da. Gero, 60ko bi enbor egin beharko dituzte.

Aurten 2. mailako aizkora txapeldunak Gipuzkoako 1. mailako Aizkora Txapelketa jokatzeko aukera izango du, Jesus Mari Lasa aizkolariaren baja dela eta.

## Txukun Lakuak, Txarutak eta Errekak aurrera egingo dute

**Amezketak** » XX. Joxean Tolosa Txapelketan Hendaia ezin izan zuen parte hartu asteburu honetan, bajak direla eta.



Jende asko hurbiltzen ari da harmailetara: giro polita sortzen da. A. OTEZABAL

### ERREDAKZIOA

Asteburu oparoa izan dute Amezketan: hiru jaialdi izan dituzte, guztia Joxean Tolosa Txapelketakoak. Azken orduko aldatetarik izan ziren, izan ere, Hendaia ez zuen etortzerik izan eta honen orde Oiarzun aritu zen.

Ostiral gauetan Txukun Lakuak 2 eta Antiguok 1 egin zuten. Kadetetan Obregon 18, Manzisidor 3; gazteetan Mendinueta 18 Ortiz de Urbina 8 eta nagusietan Santxex 13 Fernandez 18. Guztien artean adituek Obregon azpimarratu dute; «Izugarri ondo aritu zen».

Larunbat arratsaldean Txarutak 2-lekoarekin irabazi zion Oiarzuni. Kadeteetan Apeztegia 18 Sarasti 3; gazteetan Juanenea 18

Ugalde 12 eta nagusietan Uharre 17 Martinez 18. «Oiarzuarrak ondo mentalizatu gabe etorri ziren bezperan deitu genielako»; Hendaia-ko Pampiren mutilek ez baitzuten etortzerik izan. Alberdi bihurtura batekin zegoen eta kadetea gripe-ak jota.

Gaueko emaitzak honakoak izan ziren: Erreka 3 Azkoitia 0. Kadeteetan Zestau 18 Juaristi 7; gazteetan Oronoz 18 Zendoia 4 eta se-

niorretan, Baleztena 18 Andueza 12. «Gure ustez, errepaso handi xamarrak azkoitiarrentzat, kanporaketa erraza zutelakoan etorri ziren eta... egurra jaso zuten».

Oronoz jubentarekin harrituta gelditu dira Amezketan: «Aspaldian ez genuen ikusi eta kristorenak eta bi eman zizkion. Sake batean zortzitik atzera egin zion botea pilotari. Garai bateko Mikel Goñiren antza handia hartu genion».

## Zahagi ardoa antolatu dute etzi iluntzerako

**Alto** » Jai batzordeak bertan jaietako kamixetak banatu ditu plazan, honela festetarako denek izan dezaten.

### ERREDAKZIOA

Alton etzi zahagi ardoa antolatu du jai batzordeak. Herriko jaiak hilaren 30ean hasiko dira baina aurterik jai hau egin nahi dute, eta modu honetan jaietako elastikoak

banatu dituzte herritarren artean. 20:30a aldera elkartuko dira.

Jai batzordearen asmoa, beraz, herritarrek biltzea da, kamixetak herritarren artean banatzeko eta festa hasten direnerako bakoitzak berea izatea.

Bestetik, jai batzordea «festa polit batzuk antolatzen ahalegindu» dira, denengustukoak izango direlakoan eta jendeak parte hartzeko modukoak. Egitaraua prestatu dute dagoeneko eta datorren astean banatu dute etxetan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

# Ezker abertzaleak «kultur ondarea zaintzeko» deia egin dio Udalari

**Ibarra** » Aranzadik 2004an egindako txostena ekarri du gogora; bertan 58 elementu hartu zituen kontuan elkarteak.

## ERREDAKZIOA

Ibarrako ezker abertzaleak herriko kultur ondarea zaintzeko eskatu dio Udalari azken bi urteetan desagerrarazitako Txontxo eta Donperu baserriak eta Emeterio Arreseko labaderoa gogora ekarri.

Ezker abertzaleak Udalak 2004. urtean Aranzadi Zientzia Elkarte-ari udalerriko kultur ondarearen inbentarioa egiteko eskatu ziola gogoratu du.

Aranzadik Ibarrako ondare kulturalari buruz eginiko txostenean 58 elementu hartu zituen kontuan

eta «elementu desberdinak aztertu ondoren eta ofizialki ezarritako babes mailak kontuan harturik» bi kategoria ezartzea erabaki zuen: Oinarritzko Babes Maila eta Aparteko Babes Maila.

## Elementuak errespetatzea

Oinarritzko Babes Mailari dagokionez, ezker abertzaleak «babes neurri honetan sailkatutako ondasetan obraren bat burutzen bada eraikinean horrela adierazitako elementuak errespetatzea gomentatzen» dutela esan du, hau da, «bere bolumetria eta kanpoko itxura eta distribuzioa eta oinarritzko egituraren osuera errespetatzea».

Aparteko Babes Mailako ondasetan, aldiz, «obraren bat burutzen bada Zientzia Zaharberritzea eta Mantentze Zaharberritzeazaita gomentatzen dute», egiten di-



Labaderoa aurten bota dute, Txontxo eta Donperu, aldiz, 2007an. HITZA

ren egintzek bere egitura eta ezau-garriak errespetatu beharko dituztela, diseinu berririk gehitu gabe, alegia.

«Obra hauek egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion babes organoaren baimena behar da nahitaez», gaineratu du ezker abertzaleak.

## Ondarearen «bermatzailea»

Behin inbentarioa eginda eta «geure ondarea zein den zehazki jakitean» Udala ondare horren «bermatzaile» izan beharko lukela nabarmendu du.

«Era berean, ondare horren mantentzeaz eta emateaz arduratu beharko luke eta herritarrei bere balio kulturala ezagutarazteaz», gaineratu dute.

Horiek horrela, ezker abertzaleak Udalak azken bi urteetan herriko kultur ondarea «alde batera uzteaz gain suntsitu ere egin du», salatu du eta Oinarritzko Babes Maila zuten Txontxo eta Donperu baserriak eta Emeterio Arrese parkearen parean zegoen labaderoa suntsitu dutela nabarmendu du.

«Hori guztiagatik eta udal bandalismo honekin amaitzeko Ibarrako ezker abertzaleak gero eta urriago diren geure kultur ondarena zaintzeko beharrezko neurriak har dituzan eskatzen dio Udalari», esan du.

# Aitor Maiza eta Saioa Etxegia bozeto-lehiaketako irabazleak

**Ibarra** » San Bartolome jaietako eskuprogramako azala aukeratzeko lehiaketa berriz, Oscar Galindok irabazi du.

## ERREDAKZIOA

Urtero bezala herritarrak diren edota herri ikasten duten Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailara bitarteko haur mordo batek Udaletxeak antolatutako abuztuko San Bartolome jaietako bozeto-lehiaketan hartu du parte.

Epaileek konposizioa, teknika, saiakera eta festa eta honen inguruko sinboloak adieraztea hartu dute kontutan eta hauek izan dira azkenean irabazleak: Aitor Maiza eta Saio Etxegia. Gazteek abuztuaren 24ean, San Bartolome Egunean, 13:00etan Udaletxean egingo duten sari-banaketan jasoko dute euren saria.

Era berean, jaietako eskuprogramako azala diseinatzeko egindako lehiaketako irabazlea Oscar Galindo izan da. Gazteak 300 euroko saria jasoko du.

Ibarrak kolore gorria, berdea eta txuria gailentzen den azala burutu du.



Aitor Maizak eta Saio Etxegiak irabazi dute bozeto-lehiaketa. HITZA

# Urteko seigarren irteera, igande honetan

**Ibarra** » Langostino Moto Kultur Elkarteak Nafarroa aldera joango dira; datorren irteera irailean izango da.

## ERREDAKZIOA

Langostino Motor Kultur Elkarte-ko kideei ere iritsi zaie oportetara joateko garaia eta hori egin aurretik urteko seigarren irteera egingo dute igande honetan.

Beti bezala 09:30ean aterako dira herriko plazatik eta Nafarroa alderuntz joango dira. Espartza Zaraitzuko kanpinea bazkalduko dute eta arratsaldean Arbaingo

arroila ere bisitatuko dute. Egun osoko ibilaldia izango da eta 20:00ak aldera bueltatuko dira Ibarrara.

## 30 euro

Zubirin egingo duten hamaiketakoa zein Espartza Zaraitzun egingo duten bazkaria ordaintzeko 30 euro sartu behar dira bihar baino lehen Euskadiko Kutzaren 30350 14184 14100 23232 zenbakian.

Antolatzaileek parte hartu nahi duten guztxei aurrezki kutxako ordainagiria gorde eta igandean Nafarroa irten aurretik erakusteko eskatu dute.

Datorren irteera irailean izango dela ere jakinarazi dute.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



31°  
17°

GOIZA OSTARTEAK  
ARRATS. EGUZKIA  
BEROENA 25°  
HOTZENA 13°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Amasa-Villabona.** Mendizaleen argazki, diapoak eta dokumentazio berezia biltzen ari da Aizkardi. Uztailaren bukaerara arte materiala jasotzen jarraituko dute elkarteetan (Larrea auzoa 18 B) uztailaren 23an, 20:30etik 10:00etara edo 620554937 telefonoan.  
■ **Tolosa.** Abuztuaren letik 13ra bitarte Santiago Bidea bizikletaz kostatik, Tolosatik abiatuta, kiroldegietan lo eginez eta otorduk jatetxeetan eginez. Izenematea, 687 568258 (Fernando) eta 664 129216 (Luis M.).

### Mendi irteerak

■ **Tolosa.** Hilaren 31rako Encantats-Pegueira mendi irteera antolatuko dute Oargik eta Topaguneak. Informazioa, [www.zazpitantrian-gulon.com](http://www.zazpitantrian-gulon.com).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.  
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.  
■ **Irurtzun.** Gastearrena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



## Sanchezen istorioekin gozaten

**TOLOSA** • Artea ere bada ipuinak umeen adinera egokitzen jakitea eta horretan artista da Idoia Sanchez. Atzo ere bere abilezia agerian utzi zuen, Galtzaundi Euskara Taldeak Kultur Etxean antolatutako emanaldian. Areto nagusia toperaino bete zen eta hurrek ederki igaro zuten Lorentxu panpinarekin batera. Atzoko emanaldia galdu zutenek bihar izango dute bigarren aukera 10:30ean, Ibarra-ko ludotekan. REBEKA CALVO

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Ander eta Markel.** Bi pottoko hauei potto bana muxu.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak  
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak



## harpidedun izateak badu saria

① 2 lagunentzako  
egonaldia

**Atxaspi hotelean**

asteburuko egonaldia gosariarekin

Bittiria 24, 31770 **Lesaka** (Nafarroa)  
tel.: 948 637 536



② 2 lagunentzako  
otordua

**Elketa jatetxean**

Hernialde (Gipuzkoa) • tel.: 943 65 39 92



③ 4 diskoz osaturiko  
sorta

**baga-biga**  
disketxearen eskutik



④ HITZAko **materiala**



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza** info